

1911


Luzaro

Ezin dugu jakin Pio Barojak Euskal Herriko zein herri izan zuen gogoan Shanti Andia-ren Luzaro jaioterria "asmatu" zuenean, asmatzea baita idazlearen pribilegioetariko bat eta ez dakigu ez zuelako horretaz inoiz ezer esan edo idatzi. Geu lekeitiarrok gara konklusio horretara heldu garenak, 1947ko pelikula ikusi eta Francisco Okamikaren artikulua irakurri eta gero batik bat (ikus *Lekeitio: el Luzaro barojano*, *Lekeitio* aldizkarian, 2. zenbakian).

Okamikak hainbat pasarte erazten ditu Lekeitio dela frogatzeko, eta ez dugu uste txarto dabilenik, baina nobela bat da, ez HISTORIA, beraz kostaldeko herri euskaldun guztiekin parteka dezagun denona baita Luzaro.



Bilduma pribatua



"Las inquietudes de Shanti Andia", Pio Baroja, 1911

